



TXIKITTO!

2024ko otsaila 222. zenbakia



AMETSEKIN JOLASEAN

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	15-17
IKASLEEKIN	4-5	ZER IRAKURRI	18
BERRIKETAN		BITXIKERIAK	
IKASTETXEETAKO	6-7	IPUINA	19
BERRIAK		ZU BAI MARGOLARI ..	20
AMAMAREKIN BERBETAN ..	8-9		
ARATOSTEAK	10-14		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ekhi Belar

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Nola esaten da "Olinpiadetarako leku ona" euskaraz? TOKION



Zer egiten du erle batek gimnasioan? Zum-ba!

Doktorea erditze baten ondoren irteten da, eta haurraren aitak galdetzen dio:

- Doktore, nola aterata da dena?

Doktoreak esaten dio:

- Dena ondo irten da, baina oxigenoa jarri behar izan diogu haurrari.

Aitak, izututa, esaten dio:

- Baina doktore, guk Gabriel jarri nahi genion.



Zein da animalirik zaharrena? Zebra, zuri-beltzean dagoelako!

Zergatik Estatu Batuak eta Ingalaterra ezin dute xakera jokatu? Estatu Batuek ez daukatelako dorrerik eta Ingalaterrak ez duelako erreginik.



Nola esaten da zapia japonieraz? Saka-moko.



Zein da zure bizitzako ametsa? Zer izan nahiko zenuke?



BIDEOA

Amets egitea librea da, eskerrak! Nork ez du amestu sendagile ospetsua dela, edo munduko futbolaririk onena, edo harakin bikaina, edo Tourra irabazi duen txirrindularia? Iturburuko ikasleek ere amets egiten dute eta amets horien zati bat kontatu digute, hain zuzen ere, hemendik urte batzuetara euren burua zelan eta zertan irudikatzen duten kontatu digute

URKO ITUARTE 11 URTE



Futbolaria izan nahiko nuke. Txikitatik jokatu izan dut futboleant; ia edozein lekutan jokatzen dut lagunekin. Amets hori egi bihurtzeko ahalegin handia egingo dut, elikadura ere asko zainduko dut, nutrizioa oso inportantea baita kirolari ona izateko, eta asko entrenatuko dut.

IZARO ZUAZUA 10 URTE



Nik dantzaria izan nahi dut, oso polita iruditzen zait ikusteko eta egiteko eta gainera kirola egiteko modua ere bada. Dantzari ona izan nahiko nuke, baina ez munduko dantzaririk onena, baizik eta ona. Beste amets batzuk ere baditut, marrazkilaria eta patinatzailea izatea.



PAULA OTXANDIANO 10 URTE

Nire ametsa margolaria izatea da. Asko gustatzen zait margotzea eta oso ondo pasatzen dut margotzen. Gainera, eskolatik kanpo nire denbora librean joaten naiz margotzen ikastera.



KOIKILLI LIZARRALDE 10 URTE

Futboleko atezaina izan nahiko nuke, Athletic-ekoa, Unai Simon bezala. Baina atezaina izatearena ez da amets bakarra. Kirola asko gustatzen zait eta pilotari profesionala izatea ere bada nire ametsa.



IÑAKI AREITIOAURTENA 10 URTE

Futbolari profesionala izatea da nire ametsa, asko gustatzen zaidalako futbola, eta horrela, pentsatzen dut etxe handi bat edukiko dudala eta bertan biziko nintzateke nire familia guztiarekin.



ALAITZ GURIDI 10 URTE

Eibarko futbolaria izatea da nire ametsa, eta ileapaintzailea izatea ere bai. Futbola asko gustatzen zait, atezain moduan jokatzeko dut. Ilea apaintzea ere asko gustatzen zait; gainera nire familian ileapaintzaile asko dago.



OXEL OLAÑETA 10 URTE

Nire ametsa futbolari profesionala izatea da eta Athletic-en jokatzeko. Asko gustatzen zait futbola eta egun guztia egongo nintzateke futboleko. Horretarako asko ahaleginduko naiz, ondo jaten eta asko entrenatzen.



IKER BLASKO 10 URTE

Saskibaloiko jokalaria profesionala izatea da nire ametsa, saskibaloia delako gehien gustatzen zaidan kirola. Eta egunen batean NBA-ra ailegatzea da nire ametsetako bat.





ITURBURU

Egun hauek ospakizunez beteak datoz. Aurten, San Blas eta Santa Ageda bezpera, larunbat eta igandean egokitu dira eta Ikastolan, Kandelario egunean, ostiralean, ospatu ditugu. Goizetik, nagusienak, baserrietatik Santaeskean irten ziren, ondoren ikasle guztiak jolastokian abestu zuten, euriak ez zigun beste aukerarik eman. Eta, arratsaldez, berriz nagusiak Argatxa eta Sansaburura joan ziren Haur Hezkuntzakoekin abestera. Bitartean ikastetxean, txikienek San Blas pila egin zituzten. Egun borobila izan zen!!



SAN ANDRES

Urtarrilaren 29an eta otsailaren 7an Esther Larrañaga medikua San Andres ikastetxean izan da. Bi egun hauetan medikuntzari buruz hitz egin digu; gorputzeko aparatu eta organoen arteko lotura eta funtzioak ere azaldu dizkigu, osasuntsu mantentzeko kaltegarriak diren jokabideak zeintzuk diren aipatu dizkigu; eta, asteazkeneko arratsaldean lehen sorospenak zein kasutan eta nola egin behar ditugun erakutsi digu. Bere azalpenak entzun ondoren, hainbat egoera antzetzeko eta ikasitakoa praktikan ipintzeko aukera izan dugu ere. Oso interesgarria izan da, eskerrik asko!

AMAÑA

Otsailaren 8an inauterietako kalejira ospatu genuen Amaña auzoan. Aurtengoan, eskolako gaia espazioa izan zen eta kaleak eguzki, izar, ilargi, estralurtar eta astronautaz bete genituen.

Alaitasun eta umorez dantzatu genituen Astonauta, Saturnino, Samba Olele, Behera-behera eta beste abesti batzuk kalejiran. Giro aparta Amañako kaleetan sortu genuena!





LA SALLE

Hilabete honetan super Akeak izan dira protagonistak, portalean gurasoentzat egin zuten emanaldiarekin. Aurten San Blas eguna larunbata izan da eta Izartxo ludoteka taldearekin San Blasak egin, eta dastatzeko aukera izan zuten ikasle batzuk. Hilabete motza izan arren nahiko lan izan dugu proiektu eta karnabaletako entsaio, desfile, mozerro eta dantzekin... Aurten olinpiadak, Paris 2024!! ze giro ona izaten dugun beti!!



ARRATEKO ANDRA MARI



Otsailaren 8an... ARATOSTEAK!!!, mozerroak jantzi eta kalejiran irten ginen Txaltxa Zelaiko parkeraino euskal dantzak dantzatzuz. Primeran pasatu genuen, denetik izan genuen, animaliak, piratak, sorginak, poliziak... LHko 2. mailako Super Akeak lanean aritu dira 4. erronka behar bezala betetzen, Super Akeen kapak egiten (6. mailakoen laguntzaz) eta dantza ikasten. Otsailaren 14an ekitaldi ederra izan zuten Portalean gurasoen aurrean eta bertan Ake eta Klik ere egon ziren!!!! LHko 3. mailako ikasleek "Euskararen baloia" egitasmoan parte hartu dute eta otsailaren 22an Ipuruara bisitan joango dira.

URKIZU

Gure eskolako nagusienek Gorozikara joateko aukera izan dute. Ederki ibili ziren denak!

LHko 3. mailakoek Eibarko Ipurua futbol zelaia eta Eibar futbol taldeko hainbat jokalarari ezagutu zituzten "Euskararen baloia" ekimenaren barruan.

Txikienek ipuin-kontalari baten bisita jaso zuten eta asko disfrutatu zuten ipuin eta antzezpenak ikusten. "Barraskilora eta balea" filmea ere ikusi zuten Tinko zinema euskaraz programaren barruan. Amaitzeko, eskola osoak beste Kantugintza saio bat eskaini zuen, gure ikasleak euskal kantak abesten benetan trebeak direla erakutsiz.



ALDATZE

Aratosteak atzean laga ditugu, zein ondo pasatu dugun!! Eta orain al da "deskantsatzeko" momentua? Ez dakigu horrela izango den baina Aldatzeko 1. eta 2. mailako ikasleak Lapurriketara doaz gaua pasatzera. Hurrengo alean izango duzu irteera horren berri!



JULIA VAZQUEZ:

"Bidaia luzea egin behar izaten genuen udan Extremadurara heltzeko"

Arrateko Andra Mariko Malen, Yara eta Ibai Romanek Julia Vazquez amama elkarrizketatu dute eta bere haurtzarora ezagutzeko aukera izan dute horrela. Besteak beste, amamaren eta euren sasoiaren artean dauden ezberdintasunak zeintzuk diren ikusi ahal izan dute.

Kaixo amama, zer moduz?

Ondo!

Zer iruditzen zaizu esperientzia hau edukitzea?

Ondo, polita dela iruditzen zait. Ilobek elkarrizketatzen didaten lehen aldia da.

Non eta noiz jaio zinen?

1954an jaion nintzen, Extremadurako Los Santos de Maimona herrian.

Noiz eta zergatik etorri zinen Eibarrera bizitzera?

Maitasunagatik etorri nintzen 17 urterekin. Mutil-laguna urtarrilaren 17an etorri zen Eibarrera lanera, abuztuaren herrira itzuli zen oportretan eta gero berarekin etorri nintzen. Hasieran negar egin nuen, etxera itzuli besterik ez nuen nahi. Egun osoan zehar egiten zuen euria. Baina gelditu egin nintzen eta familia ekarri nuen gero. Izan ere, ama izan behar nintzen eta laguntzera etorri ziren, baina aitak lana aurkitu zuen Timoteo Sarasketa enpresan eta hemen geratu ziren.

Nola animatu zinen hona etortzera?

Urtebete lehenago Mataron (Bartzelona) egon nintzen aitarekin lanean lau hilabetez. Interna egon nintzen etxe batean eta bost ume zaintzeko ardura nuen, etxea garbitzeaz gain. Belauniko garbitu behar izaten nuen lurra, fregonarik gabe!

Eibarrera etorri zinenean zerk harritu zintuen gehien?



Klimak. Extremadurakoarekin alderatuz oso ezberdina da. Hangoa oso lehorra da, eguzki gehiago egiten du. Paisaiak ere oso ezberdinak dira, hemen mendi artean bizi gara eta han ingurua irekiagoa da.

Zenbat zineten etxean?

Zazpi. Gurasoak eta bost anai-arreba.

Nola banatzen zenituzten etxekolanak?

Umetan, ahizpa nagusienak izaten zuen ardura gehien eta amari laguntzen zion. Gero, 12 urterekin, eskolatik irteten nintzenean umeak zaintzen hasi nintzen. Lau ume zaintzen nituen.

Nola gogoratzen dituzu eskola urteak?



Ondo. 14 urte bete arte joan nintzen eskolara eta gustatzen zitzaidan, baina lana egin behar nuen etxean laguntzeko eta laga egin behar izan nuen.

Eta zure haurtzaroa, orokorrean?

Sasoi ona iza n zen. Ezkutaketetara, harrapatzera, sokasaltoan eta beste hainbat jolasera egiten genuen kalean. Olibak jasotzeko sasoiak heltzen zenean, amamari galtza bat eskatu eta olibak jasotzera joaten ginen.

Ikasle ona zinen?

Erdipurdikoa. Ikastea ez zitzaidan gehiegi gustatzen.

Zein zen eta da zure janari gustokoena?

Extremadurako ogi-mamiak.

Nola moldatzen zineten eskolan Internet eta ordenagailu barik?

Den-dena eskuz egiten genuen, arkatzarekin.

Zer da Eibartik gehien gustatzen zaizuna eta zer gutxien?

Gehien gustatzen zaidana hemen lana dagoela da, eta gutxien mendi artean gaudela. Extremadura nahiago dut, lauagoa delako.

Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

1973an. Gurasoak gurekin bityzera etorri ziren eta telebista erosi genuen.

Eta autoa?

1978an, Simca 1000 erosi genuen. Gero, senarra taxia gidatzen hasi zen eta hori erabiltzen genuen. Bidaia luzea egin behar izaten genuen Extremadurara heltzeko.

Nora joaten zineten oporretan?

Extremadurara. Han pasatzen genuen uda.

Nola moldatzen zara teknologia berriekin?

Nahiko ondo. WhatsApp erabiltzera ohitu naiz dagoeneko. Entretenigarria da.

Zeintzuk izan dira zuretzat historiako asmakizunik garrantzitsuenak?

Erropa-garbigailua eta zoru-garbigailua.

Zenbat aurreratu dugu genero berdintasunaren gaiaren inguruan? Zer egin dezakegu berdintasunaren alde pausu gehiago emateko?

Gauzak aldatu egin direla uste dut. Adibidez, anaiak ez zuten etxekolanik egiten, emakumeei egokitzen zitzaigun lan hori egitea, eta gaur egun ikusten dut gauzak aldatu egin direla.




ALDATZE



URKIZU



J.A. MOGEL



SAN ANDRES



LA SALLE



AMAÑA



ARRATEKO ANDRA MARI



KALDEREROAK



PLAY-BACK LEHIAKETA



24 taldek hartu zuten parte domeka arratsaldean Untzagan egin zen Aratosteetako Play-back lehiaketan. Betiko moduan, LH 5. eta 6. mailetako ikasleek hartu dute parte ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketan. Talde guztiak primeran aritu ziren eta giro bikaina sortu zen. Talde irabazleak hauek izan ziren: Interpretazio onenaren saria Zilarrak taldeak eraman zuen; Koreografia onena Eleganteak taldearentzat izan zen, eta Mozorro onenaren saria Teletubiak taldeko kideek eskuratu zuten.






OSATU SIMETRIA



LABIRINTOA






HIZKI-ZOPA

txakurra
 elefantea
 tximeleta
 iguana
 untxia
 arraina
 tximinoa
 izurdea
 lehia

A	T	X	A	K	U	R	R	A	G
R	E	E	A	H	N	A	T	I	I
R	O	L	G	N	T	B	H	Z	G
A	R	L	E	D	X	K	I	U	U
I	A	E	O	F	I	K	Z	R	A
N	N	O	A	A	A	I	R	D	N
A	T	H	U	T	I	N	T	E	A
T	X	I	M	E	L	E	T	A	O
M	O	A	T	Z	O	M	A	E	O
T	X	T	M	T	N	O	A	O	A

10 DESBERDINTASUN



aurkitu 10 desberdin Tasunak



8 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **OTSAILAK 26** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarteak - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa **ANDER ARISTI** txapelduna!
Aurreko aleko erantzunak bikain
asmatu dituzu eta zozketan zeu
irten zara irabazle. Ipuina eta
...eta kitto!-ren motxila zuretako!
ZORIONAK!

**Immigranteak** 6 urtetik aurrera

Proposamen original honek, umorea eta adimena oinarri hartuta, desberdinen arteko topaketa jorratzen du. Hori guztia haurtzaroko begirada bitxi eta inozentearen bidez.

**Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabiltza oinez** 8 urtetik aurrera

Alabarekin nola komunikatu ez dakien aita batek paperezko hegazkin bat bidaltzen dio egunero balkoitik agur esateko. Hegazkinetan idatzitako mezuen bidez, aitak literatura-misioak jartzen dizkio alabari, liburu-zain zorrotz baten konplizitatearekin argitu ditzan. Horrela, liburuen eta bizitzaren arteko lotura ezagutuko du neskatoak. Urte asko geroago, orain idazlea den alaba, liburutegira itzuliko da bere lehenengo liburuan jaso duen inimizio-esperientzia hori kontatzeko.

**Joan, Joana** 10 urtetik aurrera

Joana jaio zenean, Joan zela uste zuten denek, eta hala inskribatu zuten. Joanaren ikastetxean futbol txapelketa bat egitekotan dira, eta badirudi zirraragarria izango dela, baina ez golengatik bakarrik. Joanak neska talde bat antolatzen du, baina ikastetxeko zuzendaritzak mutiltzat du bera, Joanak neska sentitzen dela behin eta berriz errepikatzen badu ere.

**BITXIKERIAK**

Munduan oilasko gehiago dago jendea baino.



*Munduko alfabetorik luzeena
Kanbodiakoa da, 74 letra ditu.*

*Labezomorroa bederatzi egunez bizi daiteke
bururik gabe, gosez hil aurretik.*





AFRIKAREN HISTORIA

Egun batean, San Andres eskolan, Afrika deitutako andereñoa zegoen.

Afrika beltzarana zen eta ile kiskurra zeukan. Afrikatik zetorren eta beraren ikasleei bere historia kontatu zien.

- Ni lehen Afrikan bizi nintzen eta han lagun asko neuzkan. Nere gurasoak, Amadou eta Sara, oso onak ziren...



Afrikaren ama beltzarana zen eta ile motza zuen eta bere aita ere beltzarana zen eta burusoila zen.

Afrikak beste bi anai-arreba zituen, Mohamed eta Dauda, eta asko gustatzen zitzairen ping-pongean jolastea.

Egun batean gerra bat egon zen. Jendea oihukatzen zebilen eta...



Egiptora joan ziren. Piramide batean ezkutatu ziren eta han bi egun pasatu zituzten. Guztiei deitu zieten esanez gizonak militarrek izatera joan behar zirela eta umeak eta emakumeak Eibarrera etorri ziren.

Sara, Afrika, Dauda eta Mohamed Eibarrera etorri ziren eta hiru anai-arrebak San Andres eskolara etorri ziren.

Baina, egun batean, gerra bukatu zela esan zieten eta familia elkartuko zela. Oso pozik, hainbeste gauza igaro ondoren

berriz ere denak elkartzea lortu zuten.

ETA HALA BADA EDO EZ BADA, SAR DADILA AFRIKAREN HISTORIAN.

Ana Ariznabarreta Deme

ZU BAI MARGOLARI!

